

Gorka Moreno Márquez

IKERTZAILEA EHUko SOZIOLOGIA I. SAILEAN

Mantsotasunaren laudorioa

gauza jakina da lurralde garatuen gaur egungo sistema *supersonikoa*, azkarra eta ase ezina dela biztanlegoaren gehiengoarentzat –guztientzat?-. Baina, ba al dago alternatibarik honen aurrean?

Honen inguruan asko eta sakonean eztabai-datu dezakegu.

Artikulu honetan Slow mugimenduari erreparatuko diogu soilik. Honen arabera, presa alde batera utzi beharko litzateke eta denboraz gozatzea izan beharko luke geure bizitzaren ardatzak, betiere, ahal den heinean. Mugimendu honen adibide dira azkenaldi honetan modan jarri diren hurbileko *slow cities* edota *slow food* bezalakoak. Horrela bada, ikuspegi hauetatik geldotasunaren edertasuna eta beharra bezalako elementuak azpimarratzen dira, gizarte eta pertsonen garapenerako mantsotasuna ezinbesteko osagaia dela defendatzen delarik.

*Slow city*rentzat hiria gizakientzako gune abegitsua izan behar da eta horretarako baldintza batzuk bete behar dira: 50.000 biztanle baino gutxiago izatea; ingurumena zaintzea, kalitatezko hirigintza sustatzea, tokiko kultur ondarearen babesa bultzatzea, eta abar. Honen harira munduan 60 “hiri mantso” inguru daude eta hautagaien artean, eta geurera etorrita, Mungia aipatu daiteke. *Slow food*



INIGO AZKONA

izenak argi uzten duenez, *fast food* ereduaren antonimoa da. Zentzu honetan, tokiko jaki eta hauen prestaketa tradizionalaren alde egiten da; otorduen balio eta funtzio soziala ere azpimarratzen delarik: janariaz disfrutatzea, gastronomiaren inguruko kultura zabaltzea edota mahaiarekin lotutako solasaldiak eta elkar eza-gutzak bultzatzea... Ikusi daitekeenez, nahiko era azkarrean baldin bada ere, gaur egungo ereduaren alternatiba –mugatu?– izan daiteke

Slow mugimendua; eta azkenaldi honetan hainbeste garatu diren “hirigintza *marbellistiko* edota *pozerotarrei*” aurre egiten dion eredu ere bada. Era berean, Mc Menú edota Telepizzaren aurrean leku jakin bateko barazki berezi edota Tolosako babarrunen dohaiaik eta aukerak –gastronomiko zein sozialak– azpimarratzen dira.

Bukatzeko, zalantza bat agertzen zait guzti honen inguruan. Denak izan al gaitzke slow hiritarrak edota slow foodlandiarrak? Izan ere, horrelako “slow bizitza” aurrera eramateko, hiri txiki eta kuttun batean bizitzeko edo jaki ekologiko eta kalitatezkoa erosteko, *slow card* baino hobe izango da *fast* –eta *high*– *card* bat edukitzea. Eta hau arazoa da... Beraz, ikusi beharko zeintzuk izango diren etorkizunean Slow planetaren biztanleak... **n**

«
Munduan 60 ‘hiri mantso’
inguru daude eta hautagaien
artean, eta geurera
etorrita, Mungia aipatu
daiteke
»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Goizaldeko argiak begietan talka egin du. Begiek ez dute sinesten aurrealdean ikusten dutena. Ikusten dutena itsutu egin direla da.

Oharkabean izan da guztia.

- Egunon, zer gertatzen da?
- Ikaratu egin nauzu eta horregatik nire kolpea esnarazteko.

Ez zuen ulertzen zer gertatzen zen, baina Narciso jainkoaren kondairaren antzerakoa izan zen. Ezin zuen sinestu bere ilusioa nola bete izan zen. Oharkabe, denen ahotan zebilen. Denon ahotan ibiltzearekin batera, belarriak soinu gainezka gelditu zitzaizkion. Munduko erdigunea sentiarazteko parada eman zion. Mundua zabala zen eta bera jendez

Jainkoen sariak

inguratuta, laudorioak entzuten.

- Ametsak beldurto egin nau.
- Orduan orrialdea pasa.

Liburuetan hori gertatzen da, amets gaiztoak desagertzen dira.

Ez zituen ontzat hartu ohekiearen hitzak. Beste hitz batzuk entzun nahi zituen. Baina errealitatea gordina da. Guk uste dugu zerbait dela denon ahotan egotea, tarteka idazten dugulako. Tarteka sariak banandu egiten dizkigutelako. Banandu, haurrei gozokiak banatzen zaizkien bezala, kontent geratzeko.

- Eskuartean daukadan liburuak hauxe dio: “Jainkoak maitatzen dituztenak, horiek, gazte hiltzen dira”.

Atea itxi eta lanerako bidea hartu zuten. **n**